

Erronkariko uskararen azken hatsak ... eino're!!

Beizaman sortu
eta Lur Sanduan hil
Juan Bta. Otaegi apeza
lehen urratsak ematen
lagundu zenidanari
oroigarri maitez.

Duela zortziren bat urte, geundelarik adiskide pare bat eta hirurok Euskal Herria inguratzen, gure oporraldietako zenbait egun harturik, Uztarrotzera iritsi ginen. Egia bada ere aurrexeagoko urtetan «Irur errege maia»ra igan asmoz edo, inguru haietara joana nintzela, azken aldi honetan kezka berezi bat nuen barnean, irakurri berria bainengoen «Auñamendi»k plaza-ratu «Recuerdo de Erronkari, Salazar y Nabascués» izeneko liburuxkan, besteaz beste den Erronkariko uskararen hiztegiño bat, eta jakin, oraindik ere hiri horretan uskaldunik bazela, omen.

Latxa ostatuan egin nuen harako galdera, bai eta bertakoek izen pare bat edo, eman ere.

Alvara Garde andrea arkitu nuen Royer-en tabernatik hurbileko bere etxean, baina ez zegoen gogoak hizketarako; handik gora joanez, eliza ondoko iturri baten aldamenean, erronkariar jazkeran, gizon bat eserita ikusi nuen eta harekin hitzegitera iritsi nintzen, erdia baino gehiago ulertzen ez niola. Galdetzean izena nolakoa zuen, harek, eskuan zuen makila ene bururantz maiteki hurbilduz, erantzun: «Nolasco, con el palo te casco»: Nolasco Gorria zen.

Ez bata ez bestea, gaur egun ez dira gure munduko: andrea Uztarrotzen hil zen eta gizona Iruñea ondoko Burladan, bere familiarekin herri haundi horretara bizitzera etorria baitzen.

Harrez geroko beste ikustalditxoren batzutan, ezagutu ahal izan nituen beste xahar batzuk: Antonia Anaut, Izaban, «Katalin Garde» etxekoa (1953-garren urtean gipuzkoar talde batek, herri horrexetan, bertako euskarari buruzko iker lan batean aipatua), eta Fidela Bernat eta Doroteo de Miguel bere lehengusu, «Xarde» etxekoa hau, Uztarrotzen.

Herri honetan ezagutua izan dut Balbina Ederra, «Bortiri» etxekoa, bai eta zenbait adiskiderekín hiruzpalau aldiz bisitatua; harritzen zen hau, pixkanaka hartzen ari ginen bere uskararen kutsuaz. Ricarda Pérez famatua,

KOLDO ARTOLA

ordea, aldi bakarrean ikusi nuen, bere etxeko balkoian zegoela eta ez nuen harekin hitzik ere egiteko biderik. Bi hauk hil dira azken urte hauetan, Izabako Sotera Ederrari gertatu zaion bezala; hau ere euskara oso ederki zekiena.

Bada, egun bizi direnen artean, kantu bat edo beste, esaldiren batzuk edota hitz pillaren bat dakienik.

Badu urte pare bat edo, Urzainkin, bertako azken euskalduna hil zela: Maria Ezker zeritzan eta larogei ta hamar eta gehiago urtetara iritsia, iritsi ere.

Hegoalderagoko hirietan ezin aurki daiteke, zahar batzuren buruetan gelditu diren gauza aprobezagarri bakar batzuk baizik: Bidankoze eta Garde lekuko; eta ez naiz esatera ausartzen besterik ez denik.

Zer esanik ez da, bisitalditxo horietan behin biztutako zaletasuna haunditzen joan zela eta halatan eta harrez gero, biltzen eta irakurtzen joan nintzen hizkelgo bitxi horretan argitaratu liburuxka eta lanak, gerora, zahar jende horrekin hitzegiterakoan ezin obe lagundu didatenak: José Estornés Lasaren «Erronkariko Uskara» deitu gramatika moduko liburu txikia izan zen irakurrietan lehena. Jaun hau ere izan nuen lagun lehen aipatu zahar horietarik batzuk ezagutzen, lehenago esan ez dudan arren.

Magnetofoi bat ukan dut ondoan ene harako joanetan: lau aldiz egon naiz Antonia Anaut andrearekin; bi Doroteo de Miguelekin eta bat honen emazte den Josefa Karrika atseginarekin, zenbait kantu zati eta haur kontaketa beraganik jaso dudalarik.

Hasiera batean, egia esan, publikatzeko asmorik gabe eta hau zitekeenaz burutik pasa gabe ere, jasotzeagatik, interesgarri izateagatik edota galtzen ez uzteagatik izanen zen, zihurki, nere biltze nahi hori; baina, gaurko eguna arte mintza adar horretan idatzi denaren neurria hain urri eta eskas dela ikusirik, batetik, eta azken hatsetan dela, bestetik, pentsatu nuen eta bai erabaki ere zerbait idaztea.

Eguberrietan zorionak igorri izan dizkiet eskutitzez, bai eta haien erantzun, eta uskaraz erantzun hain zuzen, ikusiko denez.

Lekukotasun bezala hor gelditzen dira, bada, 1975 urte honetan uskaraz idatzi krisma pare bat eta aurreko urteetako beste krisma ta gutun batzuk, Erronkariko hizkuntzaren hil ezkilak aspaldi haundian errepikatzen ari zaigun hainbesterentzat.

Hasierako lan honetan azaltzen dena, Antonia Anaut andreari zor zaio, beraganik jaso baita. Andre hau oso mintzo garbikoa da eta horregatik, ha-

rekin jaso ahal ukan dudana, saiatu naiz honera ekartzen ahalik argiena. Ohar batzuk, alabaina, behar dira egin:

—Hitz batean, barruko hizkiren bat entzuten den ala ez oso garbi ez denean edota pittin bat entzuten dela iruditu zaidanean, honelako () gako mugaturik jarri dut; adibidez, *batere* eta *batre*-ren artean egon daitekeen eta doi-doi baizik entzuten ez den *-e*- hori, era honetan jarri da: *bat(e)re*.

—Hitz bat bere osotasunean entzuten ez denean, baina «horrela behar duela izan» iruditu zaidanean, honelako [] gako batez osatu da: adibidez, *banak* behar duela izan iruditu bazait, baina *bana* baizik entzuten ez bada, *bana[k]* idatzi da.

—Hizkelgi honetan hain nabarmen den azentua behar bezala adierazteko, goian aipatu 1953gn. urtean egin zen lanean oinarritu naiz. Lan hori berori eta beste batzuk ere, bide batez, ematen ahal ditut bibliografia gisa, gai honetaz kezkatu direnen lanak direnez gero, bai eta nik neure aldetik zerbait egin ahal izateko behar beharrezkoak ukan ditudanez gero:

1931ko *Euskera*, II-III-IV zenb.—R. M. de Azkue: *Particularidades del dialecto roncalés*.

1953ko *Boletín R.S.V.A.P.*, Cuad.º 4.º.—J. J. Beloqui, J. Elosegui, P. Sansinenea de Elosegui y L. Michelena: *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés*.

1959ko *Boletín R.S.V.A.P.*, Cuad.º 3.º.—Aita K. Izagirre, O.F.M.: *Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk*.

1961ko *Boletín R.S.V.A.P.*, Cuad.º 4.º.—Aita K. Izagirre, O. F. M.: *Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk (II)*.

Hainbestetan aipatu 1953gn. urteko lan horretan eta beraren 501/502 orrialdeetan azentuari buruz irakur daitekeen zerbait hemen azaltzea egoki iruditu zait: «El roncalés presenta un claro acento de intensidad que nos pareció tan marcado como el castellano. Si hay un acento fijo de palabra (o más exactamente de grupos de palabras) o si éste varía con el acento general de la frase, es cuestión en que de momento preferimos no entrar. Nuestro material, de todos modos, acaso no sea suficiente para decidirla definitivamente». Hori horrela, zera esan daiteke hitzetaz eta hitz taldeetat: *kántatu*, *kántatan* eta *xúntatu*, *xúntatan*, adibidez, zein bere bakardadean, azaldu bezalako azentu indarrez entzuten da; baina, beste hitzen bati eransten bazaizkio, aditz laguntzaile bati, esaterako, bi hitz elkartuok bakarra bezala entzuten dira: *kantatu-niezun* eta *xuntatan-gindenian*. Dagoeneko gertatu dena hau da: *kantatu-niezun* hitz «berri» honek bi azentu ditu: nagusia edo lehen mailako bat, indartsuena dena, *niézun* hitzean eta bigarren mailako beste

bat, *kàntatu* delakoan, nahiz lehen, azken hitz honek, berez, lehen mailako azentua ukan. Beraz, idazterakoan horrela jarri dira: *kàntatu niézun* eta *xùntatan gindénian*; baina ez dirudi, hala ere, beti horrela gertatzen denik, matematikako erregela huts bat bailitzan eta beste batzutan, *xùntatan gindénian* entzuten da ere.

Erran hitza, adibidez, noiz eta zeinekin dihoanaren arabera, honela ikusten da:

«*érran nezala eta érran nezála...*»
 «*bái; ník, kebén... erráitan dégun gísa...*»
 «*bái; kében erráitan déguna gísa...*»

Zenbait aldiz, silaba bakarreko hitzetan jarri da azentu hori, zioa hau dela: *zer bar dei egin*, alegia, *zér-bar dei-égin* bezala entzuten da; baina, hitzok bereiztean, *zér bar dei égin* idatzi beharrean arkitu naiz. Era honetan, silaba bakarreko hitz asko azaltzen zaigu aurrekoari nahiz atzeko hitzari erantsia, bi, hiru edo silaba gehiagoko hitz «berri» bat egiten duela. Hala-koetan, *xár bìnaz, nai íl, kán egon* eta gisa honetako asko jarri behar izan dut azaldu bezala, *xár-bìnaz, nai-íl, kán-egon* eta abar, entzuten delako. Zailtasun egon naiz, egon ere, direlako horik azkenik idatzi ditudan eran jartzeko; hau da, marra ttipi baten bitartez bi hitzok batzeko, baina ez naiz horretara ausartu, ongi dagoen ala ez, ez dakidalako, batetik, bai eta irakurtzerako zaildu besterik egingo ez nukeelakoan, bestetik.

Bokal luze zenbaiten kasua, bestelakoa da: horrelakoetan, honako zantzu batez (—) adierazi da luzatasun hori: «gōxo»; kontutan hartzeko delarik, lan honetako bokal luze bakan hauek, lehen mailako azentu indarra daramatela, nahiz —inprimategiko lana ez zailtzeko— azaldu ez diren.

Beste zenbait gauzatz ere zerbait esaten da azken aldeko oharretan. Ez dut, bestalde, *dei* gehiegirik egin nahi izan orrialde bakoitzean, irakurgaiaren zailtasuna ez haunditze arren.

IZABA

ANTONIA ANAUT, EZKERen alargunarekin «*Katalin Garde*» etxean 1971ko Abuztuaren 12an.

Gerokoan izan dut ere berarekin egoteko modua: 1973ko udazkenean eta 1975 urteko bi alditan, aurrerago ikusiko denez.

Andre honek, gor dagoenez, batzutan nolako asmotan nindoan jakin eta berak, berez hitzegiten hasi eta asmatu du zer kontak; beste batzutan,

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

ordea, idatzirik erakutsi behar izan diot galdera xorta bat, bera erantzuten saia ledin, agertzen duela beti hizketarako gogo ona eta barre egiten duela eten gabe ia denbora guztian.

Eskerrak eman nahi dizkiet, azkenik eta luza gabe, etxekoei, harengatzean egin didaten ezin obeko harrera eta laguntzatik.

Antoniak: ... *géroztik ez. Igar den úrtian, égon zuntien ere kében ... neskátla bana[k]; eta ... erráitan guniézun ze(n)mait éle ... bayà ... éz entelegátan gúziak ... (barre egiten du) ... San Sebastiáneko.*

Argazki bat berari erakutsi¹ eta bertan daudenak ikusirik:

Iror uskaldun ... baya kúexóne biak, biak méste múndiara ... Jesús! ni áino're kében, tzákin noiz ártio, Jangéikoa[k] nai dien ártio, bai ... ya, ya.

Irurak xúntatan gindénian, ánitx elerráitan gindézun ... uskáraz; gúzia, gúzia uskára giáuren ártian ... eta ník erè ... izan z(i)rénian pues e ... ánitx falta egóitan ... ñóreki're ézin da éle érran, ñóreki, kében ez káuzu bâtre, bát(e)re, uskáldunik; zomait éle, bai, bayà ... kóri eztu ... áski, ézin konbersaziónia ... ségi.

Ta ... zúk nóntik dakizu ... gú gindela kuek?

Ba ... biár dzu báí ... bézterik ere déitzeik ...

Beste inork euskaraz ez dakiela, esaten jarraitzen du:

... uskáraz bátek ere, bátek ere.

Zahar dela esaten du gero:

... xar, xar!! zónbat urte ... zómat úrte ... le parece que puedo tener?

—Laurogei ta laur

¡Ab, ya sabría! ... (barre egiten du), ya sabría ... dejardu gáitan dena ber (t)sólo ...².

Como con ése de Sn. Sn. el año p... ta gizoná, páseo(a)n, []kó bortán, bortán ... eta ... gáltatu zitázun ... orrék, dakiá uskará? báí; ník, kében ... erráitan dégun gisa ... xo(r)iéki éz. Bér gaiza zela, eta ník'e ézetx, no era igual, eninéla igual erráitan gaizák.

1 Hain sarri aipatu 1953ko lanean, osagarritzat den argazkia. Bertan, hiru andre zahar azaltzen dira: Eugenia Baraze, Simona eta Pastora Anaut. Azken bi hauk aizpa eta gure oraingo Antonia andrearentzat lehengusu zirenak.

2 Horrela entzuten dela iruditu zait, zer den ez dakidala.

KOLDO ARTOLA

Eta ... érran nezála e ... uskárax; ník zér bar dior érran? ník zer bar dior érran? érran nezala eta érran nezála ... eta abér bana-kiénetz ... Nabidádeko billanzíkoak. Eta érran níózun ... bát bana-kiéla; ia niéla ikasi kében. Ník ez; ník eztúr entzún ... kében uska-ráz, ez ... kántarik, et'ez ... koláko elizáko gáixarik bát(r)ere; ene tenprán yá ez, bátre. Ta abér! kánta zak, kánta, kánta beza ... kàntatu níézun ... baziézun irurogéi urté, ìkasi niéla ník, ikasi niéla ník ... baya kémen ez; ár³ nola ikasi nien. Frántz[ian]; eta, Frántzian ere egon nindenez? Báietz, Frántzian ègon nindézun, gázte ... gindé-nian, xoáitan gindézun, espartiñara, trabàjatrà négun. Bai, espartiña ... eta óro ... gáiza bana. Kàntatu níózun billanzíkoa ... Anitxék báda-kéi, baya ... eztéi erran órren gisa; orrek, kántatu dú, gúk kántatan dèguna gisa, orobát, orobát, orobát; óri ègon dá koriétan. Bai, ègon nuzu baya éz gáiza koriétan; San Sebastiánen ... ékustan, ékustan, ná màs ... diéla bí urte, egón nindexun. Érran níózun: ní ègon náz San Sebastiánen ... eta Igélduan ere báí, eta itsásuan ere báí (barre eginez berriz ere) ... igiríkan ... decir por decir ... y así nos reímos un rato.

Haizkora batez esku batean min hartu duela adieraziz:

Egur bat, egúr bateki, gó(i)xan ... eh! séntoten dela kóla, déus ere ... déus ere, ník ez izártan déus ere, sénto deila kó[la] ... bétik lanían!

Galdegiten zaio mantilla ronkalesa eramaten ote den.

Bái, kóriek gisa, kuék géienak gisa, báí; ta ní ere ... cómo llaman? potréta? ... potrétak?

Erakusten zaizkio berak eskatutako argazkiak. Era berean, agertzen du berak gisa horretan eginikako bat, oso ederra. «Juan Martín, Eibarko batek erkin zitazun potreta kaur» edo antzeko zerbait esan du. Badakigu jakin, Juan San Martín euskaltzainaz ari dela. Ondoren, lehen aipatu kantuz oroi-tzen da:

[Goatzen aingurie]ki⁴
arkanzelieki
gaur kantatzera (bis)

3 Agian, "aber" (?).

4 Gakoen artekoa ez nuen, arrapatu, baina bestek lehendik bildurik egoteagatik, osa ahal izan dut berroa. Lan honen azken aldean, bestalde, eta andre honek idatzi krisma batean, *goachen ainguriequi* irakur daiteke.



Foto 1.—Antonia Anaut, 1975ko Udaberrian, 87 urtetan, "Kata'in Garde" bere etxe ondoan, Izaban

Foto 2.—Izabako elizatik ateratzean 1975ko Irailean

el tu due inatibitate a ghar
 anich o ghar te az, ni ghar ber
 ghar an i ghar ten di an iri i ghar
 ber cecei on a ce, eta in eleit a
 ute berri on a ce, ghar ten ta ce
 An gar de ghar on a ce i ghar ten
 El gar ro
 Antonia

198/25-B
 © ©
 IMPRESO EN ESPAÑA
 PRINTED IN SPAIN
 DEPOSITO LEGAL BARS/20-V

Foto 3.—1973-74eko Eguberritan idatzi eta bidalia

Ni eche qui equi bitan
 ic boza lai gacisiqui esquer
 amich; quison bobun-tata
 oncorre qui; -mioria jcorra
 egiar / biazor amachon
 con; eola balie ete
 orai; izom obila baxena
 amich on etaxate berio
 Jain quicual es que tau
 dem baxala; orai orqui
 ber teute bati; enorom.
 Antonio
 14 goasm
~~ant~~

Foto 5.—1974-75eko Eguberritan egin eta bidalia

ni que eche qui orci baxon
 e carcar orrec amich on qui
 equa amich; ecyidur opcartan
 dandam daz; quibendelora
 dequ amichior; baxobgo; izom
 pctoriduan e oray mago
 onqui es quaxa; eric oriboy
 izandela ete amich entaco
 eteto beria; izandela amich
 on quicuen baco; orai
 carca xaxue quochon
 aie qui li qui
 Antonio

Foto 4.—1972-73eko Eguberritan bidalia

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

Gore Erregiaren
Xinkon Semiaren
adoratzera.

Noiz ezkondu eta harrez geroko bere bizitzari buruz, horrela dio:

... ogei ta séi urtetan, ogei ta séi urtetan ... eta gero, zórtzi aurr ...
ékun, zórtzi áur (barre eginez) ník bétik trabájanan, bétí, bétí ... lan
ánitx! família ánitx, lán ánitx ... eta éino'rè .. úrte kuétra(r)a éltu
... Jangéikoarè éskerrak. Ikusi dúr ánitx xoáitan, nì mino gaztiágo,
ab! etxákin noiz ártio egónen nazèn ník ere ... xoan ártio!

Orai gúziak, (e)txákin non: káur, Eibaren; eta bí, alába, Madrí-
den; eta ... bèzte bát, Bilbáuen; eta ... bòrgárna, kében, írian, étsen,
etsétse(n). Eta (gero?) bí seme, káur emáxtiareki, kében egòn den
kóri, máztia; koriék bí aur, gízen, bi áur, neskatila ... kóla.

Galdetzen diot zenbat «lloba» dituen. Ez bide dut ongi egin galdera,
ez baitu ulertu «lloba» hori biloba bezala. Zuzentzen dut, semearen seme
esan nahi nuela adieraziz.

Ab! ... semiaren sème ... aaah, ánitx, ámar ... los nietos; y ...
a esos les dice llóba? Llóba ... me parece que decimos aquí a los
primos ...

Ník, gù gínden ... láur aurride, bi ... múttikò eta bí neskatilla;
ní eta ... aizpá, léinak ... eta gúziek aizpári, uskárax, eta árek gúri,
gúziek uskára, gúzia uskára ... eta ník ere bàì, bétik uskára aizpá-
reki, eta ... aurridéki, bestéki, muttikuéki ... ni ér banindèn ... kas-
tellánoaren ... erráitira, ta ... bétik kastellano.

... ábrats bát ... gúziak bègira ílen ... como no hay ... abuéla kàur,
abuéla kùra, bueno ...!

Gurekin den Eibarren bizi zaion alabak: *Alxárgia!* baina bere amak ez
dio entzun. Galdetzen diot orduan hori zer den, eta berak: *altsá(r)gia*. Eta
berriz bere amari: *¿cómo le llaman al monedero, al monedero, así ...? ¿a
quién llamaban la alxárgia?*

La altsárgia? pues a ... la que escondía y encontraban mucho ...
(barrez)

Alabak galdezka jarraitzen du: festarik egiten ote zuten edo zertan ari
izaten ziren lehengo denboretan.

*¿Cómo habíamos de pasar? pues ... xoàn mezára, mezára, ta
arréstriàn ... rosárioarà, ta géro pásiorà ... kóla.*

KOLDO ARTOLA

Kontaketa ttipi batez oroitzen da halako batean:

Emázte baték, érran zìon gizon batì: xítan dén[ak], kalzétì[n] solo⁵, espartíñarik ez, óskirik ez, déuspabez. Eta érran zion emázte baték: Aurra, «Kuartillo», nón tzuk espartíñák? beste léku bàtan! ...

Ondoren, beraxek, bere modura itzultzen du:

«Cuartillo» era muy zumbón, en los días de fiesta. Iba descalzo como las pealetas, sin alpargatas y la nocheguardesa le dijo: Aurra, «Kuartillo», nón tzuk espartíñák? beste léku bàtan! ¿Ande tienes las alpargatas? jen otro sitio! ...

Bigarren egonaldian, «Katalin Garde» etxean 1973ko Urriaren 13an.

Antoniak: *Ta ník zér bar dur errán orái?*

Kòrpus égunian, xítan drá ... xítan dúzu edo dúk ... ¿cómo te diré? duk?... zórtzi, Madrídeko ... familiátik, Kòrpus égunian ... y así, kóla ékusiren grá familiák. Alaba bát, bere senárrareki eta ... en álaba bát, ère ... ezkontúk, senárrarekì eta senárraren ánáxe bat, emáztearekì eta bí aurr; ta kóla ... espéra ... gáude, espérrarik ... náí ekusi, náí ekùsi, pero bí egumentáko sólo, ézin egon òbro ... xoán biàr ... bere lánìarà ... eta ... zér bar dur érran bézte, zer?

Abér e ... gústatu zaióinetz oraigúneko ... fiestá, bai? lánt(x)atu ere báí? bai? ... kóri èz; aurrék éz uztan, éz uztàn; aurrék, biak aurréki?⁶ no, kóri èz ... Oh! zér ègun óna egín zien! ánitx on, ez béro et'ez ótz, ánitx on ...

èztakir zer errán ...

... eta ló, ere báí, ta ... ta éino're óbro báí; he estao plantando, pero eso no, eso no voy a decir ... letxúga izártan, lúrrian ... ta kóla, egúna igàr ... ez bitoker egín lán ándirik ... txiki sòlo ...

... nón egon, étsen? bai? ... ónki, ónki ...

... (lan ?) sóbra xarren, egítan néla⁷ eta ní, ník náí bízi ìino're ... (barre eginez); éz zàrr egítan ... zàrr egítan éxtur ... éino're èz.

5 Hasiara batean eta luzaro, kartéti iruditu zitzaidan. Horregatik azkeneko orrialdeetan egiten diodan galdera.

6 Iruñeko adiskide batekin joan nintzen eta horregatik galdera.

7 Edo nel-la. "niela" izan behar duela dirudi.

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

Nahiko gazte arkitzen dela aditzera eman ondoren, hona zer esaten duen bere urteei dagokienez:

Sei, laurogei ta sei, zázpigàrmean; éltan bánax Urtebèrrira, zázpi; eta ene àmà ... èltu zía, laurogei ... ta améka; eta láur úrte ígari ... láur ázken úrtiak, xáseririk, ézin ... zínkrutik égon ...

Barni barni òre gáisa(k), nik ere⁸, ta ... orai, kála báratrak ní, ez néke nai ... bízi, pero ... orái, èinó're, orái nagon gísa, pues báí. (barrez orain ere) Jangéikoak nai dien ártio, bízi ... zér bar d'égín? zér bar da egín?

Lehen, bere ama larogei ta hamaika urteetara iritsi zela esan arren, esandakoa aldatzen du pixka bat, urte bakar batez, ikusiko denez; beraren adinari buruz, bestalde, badirudi ere oker dabilela, larogei ta sei esan due-nean, larogei ta bost esan beharko baitzuen.

Laurogei ... eta ámar úrtetra ... éltu; láur áizpa ene áma, kében ... Gínden gu, láur aurride, eta ... bí anáxe Amerikétre xuan, ta bíak il, bíak, àski fite. Bata, erráyo batèk ... il, eta ... bèzte aurridia, [al] tekán. Bayá, búria gal, búria gáltu, ta ... xin zénian bére zémiarà, úl(!)ík, béxtia'e ílik. Ta úra, àl zien gísa, tsérteka, xoán ... àrtzemáit-tra, éitse ... amáño ziéná, amáñoèn ziéná, bàya úrdin, úrdin⁹ ... eta gero, mòrabié¹⁰ ... bíak úrur úrteren búrian, il; éz ekúsi bátre. Eta áizpa bát ... ésku bat móxtu; éri batàn ... mín érkin, eta èskia móxtu; ta ámar ilabéte, bízi éino'rè ... baya gáixki, gáixki ... Uriñan ... móxtu, Uriñan; ta gero, ámar ilabéteren bárnian, akábatu. Suérte txárra, suèrte txárra ... ní solo baràtu, aurridetarik ... ene azkéntzia.

Paper batean zerbait idatzi dut. Almadiak zirela eta, hona zer esaten duen:

Lótet ... lotèt, eta ... no sé cómo decir, los ataban, sí, los tra-mos ... írur edo láur, lúze luze, lúze; eta gero, kében rémoa, ta gízonàk .. bí; àntzinékua, àntzinekuán, bí, bí remo, bí gizon kor, eta ... gibelékuan, bat, ta kóla, Zarakózaradréino, egútxa bárna ... eta zomait áldiz, zomáit ere báí buruxpiko ... una vez ya dos, cayeron, dos hombres, se ahogaron; gero, zúrák ... atzemáitan eta ... birútan péarà eta úl ... ta lúrríara. Ah! una vida triste ... pero la gente alegre por

8 Ez dut oso ongi ulertzen.

9 Agian: urbin, urbil.

10 Horrela entzuten dela dirudi. Nòla're edo antzeko, izango ote?

KOLDO ARTOLA

*eso ... bixia triste, eta ... gizonak ànitx kontent ... egùtxa bárna ... xáko bàt ardáu, ta buena alforja, ta ... hasta Tolosa que iban algunos ...*¹¹.

Artaldeak nondik etortzen diren, bai eta gaztarik egiten ote den, esaten du ondoren:

Riberátik eta ... orái éz egitan gáztarik, bátere; léin ànitx, orái bátere; éz egitan, éz egitan, órai éz egitan ... orái bèi, bèi solo kében, bei; àrdírik txíki, txíki ... gútti, gútti!!

Zerbait bururatu zaio eta jarraitzen du:

El año pasao hubo un ... Uríñako bàt, éle ... èlerráitan kében, bayà, eta ... xín bar ziéla, xín bar ziéla bérriz ... búria galtan orai, búria gáltan, élèz; ànitx ... Iror ... íror lloba geundézun léin, ní bino ... zarrágo, ámar úrte, ta írorak xùntatan gindénian, pues ... uskára ... bayá, il zuntién, il ... ta ní solo barátu, ta ... gèró ñór erè ñór erè, bátek erè bátek erè étxakìn ... uskára ... no hay otra que yo, aquí que conteste ... entender ... ¡tampoco! ya hace, hace ya cien años que se ha cortao aquí el vasco; yo de las últimas familias que hablábamos entre los padres y todos, toda la familia entera, la última familia me parece que fué la mía; todas esas primas mías, también habían hablao siempre con los padres. Eh, ya no, se remató. Y ahora, ¿ya se habla mucho? tanto que quieren el dichoso vasco; el otro día venía en el periódico, aquel no era amigo de vascos ... (barre egiten du) aquel no quería vascos ... (jarraitzen du barre egiten) a aquel igual le da que se pierda; claro, porque saber ... por allí lo hablaban mucho, ahí no se ha olvidao ... y siempre seguirá. ¿Hay escuelas también? ... aquí no ... no entrará el vasco ...

Haraneko jendearen lanbideaz eta abarrez,

Orái, géntia aurré(r), orái bátere ...

Zuts, xúr ànitx ... ¿llaman zuts? ¿zur llaman a la madera? ... bésterik dèuts.

Gári, eta gúzietarik; orái déus ere, orái déus erè ... eta sárri góse! (barre egiten du) ... ay! ese de (casa) Linares ... me decía muchas cosas así, decía que ahora que mejor, todo mejor, todo muy caro y ... quería dar a entender que ... que mejor que antes; y me

11 Tortosa esan beharko zuen, zihurki.

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

dice: la carne, también vale tanto, ¿cuánto? y ... había otro con él; de San Sebastián sería también ... (barre egiten du sarri) y le digo yo: sí, sí, ahora ... todo bien, árrayà órai ... on, ta kário, eta ézin él xátra. Kóri, kóri! me salta el compañero ... kóri, kóri, y no sabía yo si era vasco o no; y entonces me dijo ... que sí, que muy caro, bien, pero que no podíamos llegar a comer ... kóri, kóri! ... oy! qué risa me dió ... ya tenía razón, ya ...

Méndian, lán ... ègin, gúzietarik; eta òrai éz ikástan gazték, èz ikástan ... koriek zér bar dei égin, ikasi báge ... lán égitan? góse ìgar! ... ník èz ezegúnten, xár bìnaz bayà ... zomáitek ékusiren dèi, báí ... zér egítan dién géntiak, ónki àla dóiki ...

Behin, hiriko karrikaren batean, galdezka hasi zitzaion gizon batekin topo egin, eta:

... báí; kében erràitan déguna gisa. Eta, nóntik xítan da? Alurretik. Alurretik? eta zér egitan du órrek álurrián? lan, lan. Eta ... abér nóla ... bizi nindén ni órtzik bagè ... ala e(z)nién xátan. Eta ... èz túr xátan. Eta ... ez, extú begitártia ... eziéna xátan gisa ... y ya queria venir aquí a hablar ... sí pero, decía igual que nosotras las palabras ... y era un médico dentista (barre eginez beti), lo primero que se fijó era que no llevaba dientes ... (ez?) útzi xítan ník ... Ez ... extú begitártia ... ezièla xátan, xátan dú!

Hirugarren egonaldian, «Katalin Garde» etxean, 1975ko Aste Sanduan.

Kanpoan bizi zaizkion hainbat familiarren batzuk, lanean «zubi» hariturik, bizpahiru egun igarotzera heldu zaizkiolarik,

Antoniak: ... fiestáren igártra, égunkò fiestáren igártra, eta ... kében ...

... ézt(e)rerè órai xoáitra, xārr bìnaz, ùrte ánitx, eta ... algunas veces, zòmait áldiz ...

Aldi honetan, galdera xorta soil bat eraman dut idatzirik, betiko gaiei buruz eta hasten natzaio erakusten. Ez ditu denak erantzuten, askotan bata erantzun gabe besteetara jotzen duelako. Hemen, bere erantzunak eta hauei dihoazkien galderak aipatuko dira bakarrik. Galderok, erronkariar izan nahi duen euskara batean egin dizkiodala esan beharrean nago, baina erdipurdikoa baizik ez delako neure hori, bai eta batez ere Antonia andrearen

KOLDO ARTOLA

egiazko uskara jatorra, guztiz erronkariarra, inolako parekatze eskasik gabe, bere horretan azaldu nahi dudalako, orain artean erabili dudan euskaran agertuko ditut.

—Lehengo denboran, almadieroak ibiltzen zirenean, noraino joaten ziren almadiak biltzera edo hartzera?

A dónde van a coger las almadías? pues ... a Onzibieta ... a Onzibieta; Onzibiét(a)ra, Onzibiétra, ahí las cogían, las recogían ahí, las ... hacían ...

—Almadietara igan eta gero nondik eta zein lekutaraino joaten ziren?

Almadiak, almadiák ... Onzibiétan, eta gero, egutxáren bárna, Zarakózara; eta gero, Zarakózara.

—Bere gazte denboran, artalderekin ibili da? nondik eta nora ibiltzen zen?

Ni, bai; ánitx égunez ... ardiéki, ¿cómo llaman? ... aquí decimos ... árreséki, pero es ardiéki; ardiéki, méndian, mendi gúzutik ... mendi gúzutik.

—Zenbat ganadero da egun Izaban?

Orái ... árdi txiki, txiki; éz rebáñorik bátre, láur edo bòst ... béizik; láur edo bòst bèizik.

—Noiz joaten dira Erriberara eta noiz itzultzen?

[I]berára, xoáitan ... Todos los Santos ... (e)Ribrára. ... máyatxàn, xitan kóna; máyatza.

—Zein bidetarik egiten dute beren bidea?

Zánkózarik, Zánkozàrik igártan ... Erribrára.

—Egiten da gazta? zenbat etxetan?

Gáztarik éz egítan, éz égítan; txiki. Bi ... bí edo írur étsetan sólo.

—Zenbana saltzen da?

Káριο, káριο sáltan, ánitx káριο. Laurogéi ... laurogéi? ... pezeta kíloa¹², laurogéi pezeta kíloa.

12 Laurein esan beharko zuen, zihurki.

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

—Izabako txuntxuna, duela denbora asko es dela dantzatu? polit zen?

Ttxun-ttxún ... dèitan zéin, ttxun-ttxúna; eta ... oráiko dantzák minò ... ederrágo báí; orái utsúsu! (barre egiten du) orái, itsúsi! ... oh! kúra bà ánitx ... ánitx éderr; orái kuák ez ... gústatan ... (barre egiten du lasaiki) bésterik zér bar dur errán ník?

—Nola ateratzen ziren plazara jantzirik mutilak eta neskatoak?

Mítílak ... ronkalés, trájean eta ... neskattxúak ere báí, gúziak. Orái ... itsusiágo, itsusiágo ...

—Zenbat urte dira ez dela dantzatu?

Urte ánitx diéla xa ezéla ... dántzatan gisa kártan, urte ánitx ...

—Zein musika jotzen zuten?

Pues ... tanbóra eta ... flautá (barre eginez) entonces flauta llamaban! ... tanbóra eta ... fláuta. Dèitan zéin ttxun-ttxúna ...

—Gazteek dantzatzen zuten bakarrik ala zaharrek ere bai?

Gazték, gazték; gazték solo ... ègitan zéin, gazték; xarrék ez, dántza korík.

—Nola dantzatzen ziren?

Anitx ... láster, plaxtán, ánitx láster eta xarrék nóla bar zéin egín láster? gazték solo ...

—Nola esaten da uskaraz «no puedo comer»? (galdera hau egitean, lehenagoko egonaldi batean ez bitoker egín lán ándirik esana zuenaz ez naiz oroitu).

Nóla erráitan dén «no puedo comer»? (barrez orain ere) Xarrék orái ézin xan ... órtzak óro ... xoán! ... uno de San Sebastián me preguntaba ... San Sebastiánekò baték, dotóre batek¹³: Abér nóla bizi nàzen ní, órtzik bagé ... abér nóla bizi nindén órtzik bage, ala enien xátan. Ta ník erràn: éz, ez, ez niéla xátan. Eta ... ez, eztú begitártea ... eztiéla xátan! ... Sí, sí, kóla, kóla errán zitán. Ez, ez ... e(k)tzáutu bègitártea ... eztiéla xátan, xátan dù! ...

13 Agian dot-tore.

KOLDO ARTOLA

—Nola esaten da «no puedo andar»?

Èbiltàn bai, éino'rè áski ónki, ni, eta ... xátan ere báí; órtzik bátre, bátre ...

Erakusten zaizkio aurreko galdera biak, ez baitu erantzun nahi zen bezala. Lehenari horrela erantzuten du:

Eztóker xan ... ónki.

Bigarrenak ordea, ez du lehen baino zori obeagorik, hasitako bidetik jarraitzen baitu:

Ébil ... báí; éino're xoáitan ... nùk elizára, eta ... nòranái ... ya he dicho ... èbiltan nazéla ... ébil ... ébil éino're báí ...

Jardun ttiki honetan geundela, hona non sartu den gauden gelara, Antonia andreri Madrilen bizi zaizkion alabetarik bat; berau aurrean dela, dio:

Nik badiér alaba bát, diéla ... zóm(b)at urté? ... (alabari begira) ... que estás allá? ... desde el vispra¹⁴ del Movimiento ... ogei t'ámar úrte? ogei t'ámar úrte Madríden ... bai, báí, báí ... eta óraí xín, ámaren ékustra, ekústan bitéi xār nizála eta xoánen nàzela fite ...!

Ezezten dugu alabak eta biok, buruz eta hitzez, azken hau: mundu honetatik luza gabe aldegingo duena, hain zuzen. Gure maitasuna ikusiz, ez du hitz motx bakar bat baino esaten:

Ez? (eta barre egiten du pozik).

Eta, kanpoan bizi baitzaio, alabazaz dio, nonbait:

Kán oraí, kan ... eta ... xin ...

Laugarren egonaldian 1975ko udararen hondarrean

Igande eguerdiz. Elizatik ateratzean lagun izan natzaio bere etxerako bidean lehenik eta gero Izaban bertan bizi zaion bere alaba baten etxera. Bertara iristean sarrerazi nau barrura eta handik denbora puska batera, alabak, gauza hauetaz hizketan egon ondoren, zerbait egin behar zuelarik, su-

14 Erronkariko uskaran ere, honelatsu: *bézpra* = aurreko egun, aitzinegun.

kaldetik aldegin du. Antonia andrea hasi da orduan zerbait kontatzera, euskaraz, baina une horretan magnetofoirik gabe nengoenez gero, ahal izan du-dan bezala, lasterka, hartu dut eskuz ez esandako guztiak baina bai ordea ondoren dakardana. Azentuari dagokionez, zer esanik ez, gauza bera gertatu zait: oso bakan batzuk hartu ditudala, baina osorik ematen ez den arren, jasotakoak azaltzen ditut.

Antoniak: ... *guk aita ta amareki bétik uskaraz eta gindézun laur aurride eta ... mayorna, andiena ... gúziak uskárax bestér eta guk arí uskaraz, irorék, úrur aurride, nik bétik areki uskaraz eta beste aurrideki erdaraz, ezin kausi éki. Eta guk irorék erdara. Gero xoan zuntién Ameriketra, eta biak il gaxoak. Bata errayo baték, bere ... (jarraitzen du, lehenagoko ikustaldi batean euskaraz esandakoa, erdaraz adierazten) ... en la misma carpa que se acostaron, por la tormenta y los dos perdieron el sentido, uno del todo, porque murió, el otro no —trastornado, sin sentido— pero cuando volvió —en sí— se encontró con su hermano muerto; después, también murió ...*

Sukaldera itzultzean, alabak argitu du nola joan zen bere amaren anaia hau, arrastaka nonbait, laguntza eske: trenbide baten bazterretik bere autoan zihoan gizon bati albistea eman zion.

... *en Arizona murió, pobre! ... eta bat ginién, edo aizpa andiena, bizen aizpa, kori il zunién infezione bat artu eri batán eta éskia moztu, lein éria eta gero éskia ... kareki xoan zunién, amar illabete (igaro ondoren) ... eta areki, infekzionereki, xoan mündutik, tristea! suerte txarra gúziek, suerte txarra. Orái kében etxakin noiz ártio, tenpra ánitx ez, laurogei ta zazpi urte, beste banen altiará, ánitx. Jangéikoak nai dien artio ... eino're, nai noke bizi zomait urte obró, zer bar di'erran, orái kében bátre ... ez dakizei uskára.*

Gindezun iror lloba, euskaldun; anitx nonbratu izan zuntién béz-teak: Simona izaguntan zezéin Uriña gúzian, eta Pastora; gúziek guniézun apellídoa bera: Anaut ... xoan zuntién. Ni, bizi izan balira kurak, bétik egonen nindezun elerraitan éki ...

Orái nuzu bost alábareki eta bi seme eta baték ere etxakin uskaraz.

Pentsatzen jarri eta hona zer bururatzen zaion:

¿Cómo se dice egunón en vasco?: Astoxar ándia ni, bida garrotekál-di bat.

KOLDO ARTOLA

Ondoren, badirudi eutanasiari buruzko lanen bat irakurri berria dela, kazetan, honela jarraitzen baitu:

Periódikoan, nork eskribatan zién: xarrak oro il balite ... zer gáizto, zer gáizto génte gáztia ...
... múndian. Ahora ya querían poner esa moda, sí, de matar viejos (eri bat kopetara eraman du, ero daudela edo, adierazi nahian) *... que, hasta que Dios quiera, que para eso nos echó al mundo ... precisos no somos nadie, nadie, pero los que hemos venido al mundo queremos vivir mientras Dios nos da la vida ...!*

Ordu bata dela konturaturik, galdetzen du ea nola esaten dugun guk «qué hora es». Nik, «zer oren da» idazten dut dudan paperan, berak erabiltzen duen gisa, antza, eta

Ah, como nosotros ... (ondoren orduak esaten ditu): Oren bá-kutxa, bi or(e)nak, así dicen?, írorak, láurak, bóstak, séiak, xázpiak, zórtziak, bedrártziak, ámarrak, amekák, amábiak.

Uste gabeko jarduna izan da eguerdiko labur hau. Arratsean, pentsatu bezala, hain maiz aipatu Katalin Gardera abiatu naiz; badaramat orain magnetofoiiaz gainera, kuestionario ttiki baten moduko galdera xorta bat. Galdetzerok egiteko, «Coplas roncalesas de la tía Martina» izeneko liburuxka batek eman dit gai. Delako gaia, andre honek bizi izan duen zerbait denez gero, nahiko egoki iruditu zait.

Antoniak: ... múndia gáixto orai ... bàì, bàì, bàì, bàì, nórk dié-gu ogéna, eh? ... kòri, kóri! (barre eginez).

Galdetzen diot ea hemen, Izaban, San Nicolás egunean jai egiten den, eta honi dagozkanak.

Nik zér bar dur èrran? aquí ni se conoce San Nicolás ahora¹⁵ ... limósna éske ... mutikoák eta neskatilák eta gúziak, àur gúziak, etsé-tra xuán, eta ... emóitan ziziéin ... gáiza ... kastáña, intzagúr, eta ... ètse abratsétan abratsér, turrón, gáiza góxo ... pobrer ez, abratsér; abratsék abratsér ... turrón, eta koriétarik gúziatarik ... eta gero, pues ... batsúka bere étserá, bólsoa béterik ... eta xán! (barre eginez berriz) zér bar zéin ègin bézte? déus erè ... gero, arrátsean, pues òllar mezá, mezára, òllar mezá, no dicen así? ... déus, déus erè ... béterik.

¹⁵ Nahastera doa, ondorengoan, San Nicolás eguneko festa, Eguberri bezperako "Gabon" ekoekin.

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

*Errán déitekela erráite kèki ... korietárik ... muttikoék kantá-
tzen, bèa ník'e orái éz ogàrt nóla dèn kantxóya ...*

*«San Nicolás en la puerta
esperando a la respuesta
si le dan, no le dan
las gallinas pagarán.*

*Después había ... no sé si era el día de San Nicolás ... con una
manzana ... (euskaraz esan dezan saiatzen naiz) ah, sí, espere, he de
pensar ... en medio de la plaza ponían un caldero de agua ... y una
manzana flotando ...*

*«mánzana, ságarra
para mañana y para hoy
San Nicolás en la puerta ...»*

*no puedo en vasco yo eso decir ... en vasco no lo cantaban! ... y po-
nían un caldero ... bértz bat úreki plaxtán, eta ságar bát, flotando,
flotátzen kór, eta morroyék bàr zizéin àrtú ... àuàreki ... bisióne, eta
kóla, kuék, ta bérriz ... éskua.*

Aurreago aipatu eta goizean berak aitatu eutanasiar oroitu bide da bat batean, erakusten duenez:

*... xárrak óro il balíte ... il tiála bérak, gáztiak! xarrék eztegúla nai
il! ... il tiála gáztiak, gáixto bitra óro ... ay! gázte gúziek ogía xátan
bítei ... gáixki meréxiturik ... eta kóla ez, kóri, kóri bekàtu ándi bat,
erráitia'è xárrak óro il balíte ...*

Galdetzen zaio Aste Sanduaz: nolakoa den edo zer egiten den.

*Ník nóla bar zur errán? elizára, án xoán, ánitx ... zér bar da
egín? ala órai eztá xoaitán? ... órai éz nai xoan, orái éz nai xoan
géntia elizára, éz nai xoàn ...*

... bádía àrras on? ¹⁶, bar dié(z)t (k)álta ¹⁷, ta musikára ... kóla ...

Korpus eguneko prozesionea dela eta beronen inguruko ospakizun edo jaietaz galdetzen da.

*Prozesióne txiki kében órai, kében txiki ... órai bai; Kórpus
Kixteren égunean béste èginedán ¹⁸ bát(e)re, bátre ... goixtégunian, bés-
terik bátre, bátre ... ez dagó bésterik.*

16 Arrats izango ote da? Galderaren doinua, bestalde, ez dago ere argi.

17 Agian ere kanta edo alta.

18 Egumetan izango da, zihurki.

KOLDO ARTOLA

Kòrpo Kríster éguneàn ... iri gúzutik, èbiltan dá prozesiónia, baya éz, bestérik ez.

... éz, pròzesióne ándirik ... géntia éz xoáitan léin gísa ...

San Juan eguneko festa. Galdetzen diot ea egia den, San Juan egunean, goizean goizik, jendea, oinak uretan sartzera, hibaiera jeisten zen.

... fiesta, kében, San Juan ... San Juan ahora no hace fiesta, verdad? léin bai, eta plasztán, sónia ... fiesta grande, orái ez ... ya hace tiempo que no hacen esto. Géntia, San Juan ègunian, géntia ... góizan bérton, a la mañana luego, egutxára eta zánkoak ékuz eta ... buría ere báí ... orái ez bitei xinéstan déus eré, pues déus! orái(n) zér xinéstan déi? tàì-tarái-tá!! gáixto, gáixto, gáixto ... gáixto, bésterik bátere ... k[e]mén xoáitan zuntién Sàñ Juan góix(e)an, àlurrétra, eta ... balin bazágon ... bélar o sembrao, o algo ... decían que se daban volteretas por ... por la hierba o por lo que hubiera ... ah! yo no ví, así que no sé cómo lo voy a ... yo no ví; lavar, sí, los pies lavar, siempre ... orái ez; orái, ñórere èz xoaitán egútzarà, orái etsén, bañerán sár ta kór ékuz ta fuera ... ah! orái, orái beláizurik egutxán sar kán gúziak ... epeee!! ètzulúkaka, eeh! kóri gàiza itsusía, bub!! gàiza itsusía gúziak beléi(n)zurik, kan ... ala extéia? beh!

Eta gero, su haundi bat biztu eta eltze haundi batean txokolate egiten ote zen, gazteentzat.

... éz ekúsi, kóri, gàiza goriétarik ... ene tenprán éz, le(i)n, eta ... orái, ñórk ere, déus ere ... égin.

Galdeturik «sanjualiliak» biltzen zituzten, baietz dio:

... medikaméntotàko, inflamaciones de la cara y así, pues esa, ese humo era muy bueno, de la flor ...

Ondoren erakusten zaiona: Ezpelaz egiten ziren goilareak. Ea denbora asko duen ez dela egiten; non, nolaz eta nork eginak ziren.

Bai, bai, bai ... òrai gúzia éxerrágo, gúzia éxerrá ... Méndian, gizonék, ègitán golárià eta gero eskribatan ánitx, ánitx èder ... Nik, kében èkusi niézun gizon bat-i égitan; después ... Artzaiék, egitan zezéin géro lábore góllariari, ánitx éder, ánitx éder ...

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

Santanatarrak. Santa Ana egunean, izabar anaiakideak, goizean, Arrakon den ermitara joaten omen ziren, erronkariar jazkeran, behor eta mandoen gainean. Eta egun hartako ospakizunei dagozkienak.

... egia? bái, Santanatárrak xoáitan zréla, gòixan bérton ... egiá, bai, gúzia kori óro egia, baya ... tènpra ánitx diéla eztéla égin kében kóri, tenpra ánitx ...

Elurra denean, jendeak zer egiten duen, nola berotzen diren etxeak, zer egiten duten artzaiek mendian eta hurrek hirian ...

Sú egìn étsen, eta bélló, claro ...

Élurr ékus, zér bar da égin obró, eta ótz ìgar, (e)ta bélló ... [ez]títeke òbro, aligáti(y)òró, zertáko nai d(i)ei óbro?

Súan, súyan, zánkoak bélló kor; orái, ez egitan súrik eré, gaizá koriékí ... (elektrikako sukalde bat erakusten du) orái ótz ìgar, otx, èlur ezagunian ótz ...

Zér bar dèi égin, (artzaietaz ari da orain) àzindá kuída... azindá kuída; artzaiék zér egitan dei méndian? azindá kuída ... eta aurrék írian? pues súian bélló ... (barre eginez) súian bélló ... utz, éror déila, zér bar deá (?) égin?

Egudiargo edo egoidiargo. Zer eta nolakoa zen; andreak, ilunabarretan, noren sukaldetara elkartu ohi ziren eta zertarako.

Pues étse bátra xoán eta kórr egón lánarekí eta mi(i)a ébil firme ...

Ník éz banién ekústán ... kán egon, ta lánarekí.

Eskírabatu diénak bázakin bàì, zér egitan zein, ník mino obéki ... xoáitan bízren, úrak erè ...

Matatxerria. Zerria nola hiltzen zuten eta hil ondoren hartaz zer egiten zen, da oraingoa galdetzen zaiona.

Xan, zér egitan zèn? èztakieyá zèr egitan zén? xérria il eta, lokein-kák égin, las longanizas ... ta ódolak eta gero ... xan! zér bar da égin bézte? déus! ... [lokei] nka égin, ódolak ... eta xán! zér bar zéin, bézte? déus ere. Eta ... gèro zakútoa ... bétatan, etsétan, gáizax, eta xán ... eta kóla, zér bar d'e(g)in?

Natibitate. Eguberriak direla eta, gauza asko xamar da jakin nahi dena. Erakusten diodan paperan, haurrak, gabonetan, karrikara kantatzera atera-

KOLDO ARTOLA

tzen zirela aipatzen da, bai eta hiritar batzuek jateko goxoak ematen zizkietela.

... amandérrak emóitan zién katamóra; nexkatil(l)ér ... muñéko bat gísa éginik¹⁹ eta mùt(t)ikoérr ... redondo, una rueda ...

Gaztainak erretzen ote ziren.

Gaztañák errá eta xán; zartána, zartána batan, sú(i)yan, emán, [i]xík! ... ponían, se asaban y las comíamos ...

Gabonetan nolako afariak egiten ziren da jakin nahi dena eta ea azken urte hauetakoak ere, gisa berekoak diren. Zer gauzak jaten diren ere galde-tzen da.

*Orái, nólako apário ...? órai gísa! Aparioák nóla bar dra égin?
... léin mino òbro báí... orobát! al fin, igual!
... ék bai, baya gúk ez; eskribatu diénak, xátan al dú, gáiz'òn, baya gúk ez ... (barre egiten du eten gabe) zér nai dèi, xákin zér xátan dégun? gaiza góxo, gaiza gōxo ... ék emóitan déinetik ... gaiza góxo ...*

Oilar meza dela eta zer besterik konta dezakeen galdetzen diot.

Ollar mezára, Natibitátez ...

Kòntátu biar dúr, orái zér obro bar du(r) kontátu ...? òllar me-zára yoàitan gindélaeztágo ósorik.

Azkenik, Izabarainoko bidezabala noiz egin zen, bai eta lehenagoko dilijenzia eta bide zaharretaz galdetzen da. Jendea, Iruñeara joateko edota haranean bertan, batetik bestera nolaz mugitzen zen, galdetzen zaio ere.

Ese qué dice pues: ... karreterá Izábaradréino?

Izabarradréino ... badiéla éin úrte, kónà, kóna ... de abajo aquí hace cien años; después, ésta ... a Belagua, unas sesenta ... Beláguarà ... Izábará éin úrte; eta ... Bèlaguará ... irorogéi.

Méndian, pues ébil, léku batarik béstiarà ... zankuéki, ébilik, ah bai, ázkar, ébil, ébil, ... ébil, ébil, ébil. Orái, karreterá dagólakó(t)z, ùste déi egítan dén ónki ... bádaki(e)zéi nóla, bádakiezéi nóla ebíltan dén, ník erran báge ...

19 Agian égiñik.

Esaldi batez oroitu bide da, ia bat batean:

«El baile de la tximilindróna, bátaren gáitza, bésterèn óna» Ya está. Y es la pura verdad, suele ocurrir eso ... (eta barre egiten du berriro ere).

Egun batzuk igaro ondoren, nere familiarekin, agurtzera azaldu nazaio. Etxeko atean gu ikustean, irripar zabal batez «bérriz kóna?» esan digu. Barrura sartu eta, nituen zalantzazko korapilo batzuk askatu nahiean, berak aurretik esandako zerbait erakutsi diot baina ez dut ondorio onik izan, nekez ulertu duelako aditzera eman diodana. «Kuartillo»-rena, adibidez, agertzen diodanean, «karteti» hitza zer den jakin nahi nuen, baina, berak, irakurtzen hasi eta hartaz oroiturik, berriz kontatzen du:

... eta emàzte baték errán ziózun: áurra, «Kuartillo», nón tuk expartiñák? beste léku bátan! ... no le mintió ... beste léku bátan los tenía ... áurra, «Kuartillo», nón tzuk expartiñák? beste léku batan! ... (irakurtzen ari: kori zer da? zer da karteti?) calcetín, querrá decir? ... ala eztún, ala eztúk kalzetínik? ... nóla yago, kalzetínik sólo ala eztúk?

Beste gauzatxoren bat irakurtzen duela eta esan nahiaz ongi ohartu gabe, honela dio:

Egítan diék otz, óts karrikátik, vamos (vayamos) de la calle ... no? no estará bien? ... cuando hace frío, pues no ... Muriendo y aprendiendo, aprendiendo vasco estoy yo ... (barrezka).

«Dondon kandel» en gisako eta jolasten hasteko erabili ohi den «emate» horietako batez oroitzen da:

Lábe, lábe; también es vasco, es una tontería, verdad?

*«Lábe, lábe
ógiak erre báge
ságarra erre biár
eta sùrik ez»*

cosas que decíamos de chicas, jugando, así ...

*«Lábe, llábe
ógiak erre báge
ságarra erre biár
ta sùrik éz»*

KOLDO ARTOLA

Azken aldi honetan, kantari bezala, «ematen» egongo balitz bezala esan du. «Ogiák erre báge», hala ere, entzun zaio, geroxeago, gaia adieraztean. «Tabas» hitza idazten diot, ondoren, paper batean, eskuak eta besoak mugitzen ari naizela pixka batean, jolasten bezala, ea gogoratzen den jolas honi dihoakion zerbaitez.

Arrízko, decíamos; vamos a jugar a las tabas, pero no sé yo decir en vasco éso. Como no hablábamos las chicas éso . . .

Nági; para decir de una a otra, pues . . . nági! no es que lo decíamos, que yo no, con las chicas yo no hablé ni media; ya lo hablaban más . . . las mayoricas a mí, sí, pero . . . de mi tiempo no. Ots arríxkuarà, tóstara²⁰, arrízkuara. Tòstatzéa . . . tòstatzéa, a jugar al arrízko, arrízkuara. Para decir a las tabas, decíamos arríxkuara, es el arrízko, el que bota . . .

Aurreko egunean, San Zipriano eguneko jaia zela aditzera ematen diot.

Anitx alegre . . . gatzék, gatzéak, pues . . . dánza firme, firme dánza! éro banak égiñik . . . xarréntako dèus! dèus . . . gatzék . . . Ya, se ha rematao.

Bere etxekoek eman pastatxo bat jaten ari den nere alabatxo bati:

Zér xàtan dún?

Beharrez hartutako gauza izan denez, azentua neuk jarri dut, horrelakoa behar duelakoan. Ondoren, hurrei buruz, nonbait, eransten du:

Aurr ègin ziénak, lán ègin zía . . .! lán-lán-lán-lán . . . (barre egiten du) . . . no es verdad? lána ègin zoéna, da quehacer; que dan quehacer los hijos . . .

ADITZ LAGUNTAILEAREN ERA BATZUK

Erronkarin edo Ronkarin (?) era ezberdineko hiru tratamendu izan dira: DUKETZ edo «berorika», nolabait esateko; ZUKETZ edo «zuka» (hau bi eratan bereizten dena) eta YIKETZ edo «hika».

20 AZKUE, Part. d. r.: Taba ezurko, arizkoarri. A las tabas ezurkoara.

ZUKETZ-eko bi era horietarik, bat arrunta da: hots, gehienek erabiltzen duguna; besteak, ordea, lurralde batzutan iraun du soilik (Erronkari, Zaraitzu, Zuberoa ...) eta aurrekoarekin duen bereizkuntza, honako honetan datza: aditz laguntzailea, errespetu handi xamarreko ZU batekin nahasten da, ZUKETZ-eko era osoago bat gertatzen dela elkartzeko honetatik.

Hori horrela, eta adibide bat besterik ez aipatzeko, ikus dezagun «atzo etorri nintzen» esateko, nolaz baliatu izan diren:

atzo xin ninden ZUKETZ-eko era arrunta erabiliz gero

atzo xin nindezun ZUKETZ-eko errespetu handi xamarreko era erabiliz gero.

Hau honela, (D. t.), (Z. e.) eta (Y. t.) erabiliko dut zenbaitetan, DUKETZ, ZUKETZ (errespetu h. x.) nahiz YIKETZ-eko tratamendu direla argitze arren. ZUKETZ-eko arruntak, aldiz, ez dira bereiziko, horretara itzultzen baitira ahal diren guztiak.

<i>Badakei</i>	Badakite. <i>anitxek badakei</i> = askok badakite.
<i>Badakiezei</i>	Badakizue.
<i>Badia?</i>	Bada, Ba al da? Ba ote da?
<i>Badier</i> (Z. e.)	Badut. <i>nik badier alaba bat</i> = nik badut alaba bat.
<i>Banakienetz</i>	Ba ote nekien.
<i>Baziezun</i> (Z. e.)	Bazuen.
<i>Begira</i>	Baikara, Bait gara. <i>guziak begira ilen</i> = guztiak baikara hilen. (Zub.: beikira) kutsadura bat ote?
<i>Bida</i> (D. t.)	Azkue, Dic.: 2.º (AN-elk, R-uzt), dadme, donnez-moi. <i>bida garrotekaldi bat</i> = eman biezat ...
<i>Binaiz</i>	Bainaiz, Bait naiz.
<i>Bitei</i>	Baitute, Bait dute.
<i>Bitoker</i>	Baitezaket, Bait dezaket. <i>ez bitoker egin lan andirik</i> = ez baitezaket ...
<i>Bitira</i>	Baitira, Bait dira.
<i>Bizen</i>	Baitzen, Bait zen.
<i>Bizren</i>	Baitziren, Bait ziren.
<i>Dakizei</i>	Dakizue; baina (Z. e.) delakoan, <i>dakizei</i> = (dakite).
<i>Deila</i>	Dadila. <i>sento deila kola</i> = senda dadila hola.
<i>Diar</i> (Y. t.)	Diat. <i>igortan diar iri</i> = igortzen diat hiri.
<i>Diegu, Degu</i>	Dugu.

KOLDO ARTOLA

<i>Diezt</i> (Z. e.)	Dut. <i>bar die(z)t kanta</i> = behar dut ...
<i>Diek</i> (Y. t.)	Dik. <i>egitan diek otz</i> = egiten dik (du) otz.
<i>Diela</i>	Duela.
<i>Dzu</i>	Duzu.
<i>Eztakieya?</i>	Ez dakite? Ez al dakite?
<i>Extei</i>	Ez dute.
<i>Exteia?</i>	Ez da? Ez al da? <i>ala exteia?</i> = ala ez da?
<i>Ezt(e)rere</i>	«Ez eta ere, Ezta ere» dirudi; <i>batre</i> eta are <i>batrere</i> , «bat ere» diren bezala. Agian, ... <i>ext(e)rere orai xoaitra</i> , honelako esaldi orokor batean uler litzateke: ez naiz ausartzen dantza egitera, ez eta ere orain joatera.
<i>Eztoker</i>	Eztezaket, Ez dezaket.
<i>Eztur</i>	Ez dut.
<i>Geundezun</i> (Z. e.)	Geunden.
<i>Gindenian</i>	Ginenean.
<i>Gindezun</i> (Z. e.)	Ginen.
<i>Ginien</i>	Genuen.
<i>Guniezun</i> (Z. e.)	Genuen.
<i>Kauzu</i>	Daukazu (?).
<i>Nagi</i>	Hator, Etor hadi.
<i>Naz, Nazela</i>	Naiz, Naizela.
<i>Neke, Noke</i>	Nuke.
<i>Niela, Ninela</i>	Nuela.
<i>Nien</i>	Nuen.
<i>Niezun</i> (Z. e.)	Nuen. <i>kantatu niezun</i> = kantatu nuen.
<i>Ninden</i>	Nintzen.
<i>Nindexun</i> (Z. e.)	Nintzen.
<i>Niozun</i> (Z. e.)	Nion. <i>erran niozun</i> = esan nion.
<i>Nizala</i>	Naizela (Zub. bezala). Esaldi bakar batean, mugaz bi aldetako erak erabiltzen ditu: <i>ekustan bitei xâr nizala eta xoanen nazela fite</i> = ikusten baitute xahar naizela eta joanen naizela laster. <i>Niz</i> zuberotar era eta <i>naz</i> erronkariarra.
<i>Nuzu</i> (Z. e.)	Naiz.
<i>Tuk, Tzuk</i> (Y. t.)	Dituk.
<i>Tiala</i>	Daitezela. <i>il tiala</i> = hil daitezela.

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

<i>Yago</i> (Y. t.)	Hago.
<i>Zaioinetz</i>	Ote zaion. <i>Aber gustatu zaioinetz</i> = ia gustatu ote zaion.
<i>Zein</i>	Zuten.
<i>Zezein, Zizein</i> (Z. e.)	Zuten. <i>egitan zezein</i> = egiten zuten.
<i>Zia</i> (Y. t.)	Zen. <i>ene ama eltu zia</i> = ene ama heldu zen.
<i>Zien</i>	Zuen. <i>emoitan zien</i> = ematen zuen.
<i>Ziela</i>	Zuela.
<i>Ziozun</i> (Z. e.)	Zion.
<i>Zitan</i>	Zidan.
<i>Zitazun</i> (Z. e.)	Zidan. <i>galtatu zitazun</i> = galdetu zidan.
<i>Ziziein</i> (Z. e.)	Zieten (?). <i>emoitan ziziein</i> = ematen zieten (?).
<i>Zoena</i>	Zuena (?). Agian, <i>zoana</i> = zihoana (?).
<i>Zunien</i>	Zenuen; baina (Z. e.) delakoan, <i>xoan zunien</i> = joan zen. (hil zen).
<i>Zuntien</i>	Zenituen; baina (Z. e.) delakoan, <i>xoan zuntien</i> = joan ziren. (hil ziren).
<i>Zur</i>	Dizut. <i>daizur</i> batetik datorrela dirudi.
<i>Zrela</i>	Zirela.

HIZTEGI TTIKIA

<i>Abrats</i>	Aberats. <i>abratsek abratser</i> = aberatsek aberatsei.
<i>Aingurieki</i>	Aingeruekin.
<i>Aino're</i>	Oraino ere, Oraindik ere.
<i>Alta -tu</i>	Aldatu.
<i>Aligati</i>	Azkue, Dic.: <i>Aliaga</i> (S), pasatiempo, passe-temps. <i>Alikatu</i> : 1.º enfadar a alguien, faire mettre quel- qu'un en colère. (Araq.) Bietarik bat izango ote?
<i>Altekan</i>	Ondoan, Aldamenean.
<i>Altiara</i>	Aldera. <i>beste banen altiara</i> = beste batzuren aldera.
<i>Altsargia</i>	Ezkutalekua(?) <i>altsa</i> eta <i>gu</i> = <i>leku</i> -tik ote? nahiz gero «diruxorro» bezala erabili.
<i>Alur</i>	Alor, Erein lur. <i>alurretra</i> = alorretara.
<i>Amander</i>	Amabitxi, Ama besoetako. <i>amanderrak emoitan zien</i> <i>katamora</i> = amabitxiak ematen zuen ...
<i>Amaño</i>	Hurbil. <i>etse amaño ziena</i> = hurbil zuen etxea.

KOLDO ARTOLA

<i>Amatxar</i>	Atso zahar (?) Amatxi, amona xahar (?)
<i>Anaxe</i>	Anaia (mugagabea).
<i>Anitx</i>	Aunitz, asko.—Oso. <i>anitx onki</i> = oso ongi; <i>tenpra anitx</i> = denbora asko.
<i>Anitxi</i>	Asko, askotxo (?)
<i>Apario</i>	Azkue. Part.: Comida o refección en general <i>apario</i> . Tenemos tres comidas al día; almuerzo, comida y cena. <i>Egunean iru apario dozkegu; askaria, bazkaria, aigaria</i> . (Azken honetaz galdetu nahi izan nion, ongi berexi ez nuen arren, «nolako apario ...» idatzi bainuen.)
<i>Arres</i>	Ardi.
<i>Arrestrian</i>	Arratsaldean.
<i>Artzemaitra</i>	Atzemaitera (?), hartzera, iristera.
<i>Atzeman</i>	Hartu, arrapatu.
<i>Aurrer</i>	Alper, nagi, lazo. <i>orai gentia aurrer</i> = orain jendea alper. Egia da azken -r- ez dela oso garbi entzuten, baina zentzuagatik horrela behar duela dirudi, nahiz bibliografian aipatu izkribuetan, <i>aurer</i> azaldu beti.
<i>Aurride</i>	Anaia edo arreba, bereizi gabe (mugagabeak).
<i>Azkenntzia</i>	Azkena, bukaera, azken hatsa.
<i>Bage</i>	Gabe.
<i>Banak</i>	Batzuk.
<i>Baratu</i>	Gelditu.
<i>Baratrak</i>	<i>Baratra</i> izango ote? edo agian <i>baratrak</i> = gelditurik? Dena den, <i>baratrak</i> entzuten da.
<i>Barna</i>	Barrena, Barne.
<i>Batsuka</i>	<i>Bakutxa</i> -ren metatesia ote? Hala dirudi.
<i>Bea</i>	Agian, <i>bea(tu)</i> = aditu, begiratu. Baina esaldia- ren zentzuagatik, gehiago dirudi <i>baya</i> = baina. (Zub.: bena).
<i>Belaizurik</i>	Bilutsirik, larrugorririk.
<i>Bello -tu</i>	Berotu. <i>bello</i> = berotxo.
<i>Ber</i>	Berdin. <i>ber gaiza</i> = gauza bera, berdina; <i>ber gisan</i> = gisa berean, era berdinean.
<i>Bester</i>	Besteei.
<i>Biar, Bar</i>	Behar.

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

<i>Birutan peara</i>	Buruz behera, zilipurdika. <i>Buruz peara</i> eta <i>buruzpiko erori dun</i> esan zuen ere, beraxek itzuliz: <i>de cabeza se ha caído</i> .
<i>Borzgarna</i>	Boskarrena, Bostgarrena.
<i>Deuspabez</i>	Ezer gabe (?) <i>deus bage</i> edo <i>deus gabe</i> -tik datorrela pentsa daiteke?
— <i>radreino</i>	— raino. <i>Zarakozaradreino</i> = Zaragozaraino.
<i>Egútxa</i>	Hibai. Mugatzen bada, <i>egutxá</i> = hibaia.
<i>Ein</i>	Ehun.
<i>Eino're</i>	Oraino ere, Oraindik ere.
<i>Ek</i>	Haiek
<i>Eki</i>	Haiekin.
<i>Ekun</i>	Ukan, eduki. (Zub.: <i>ükhen</i>).
<i>Ekuz -i</i>	Garbitu.
<i>Ele</i>	Hitz.
<i>Elerran, Ele erran</i>	Hitzegin, mintzatu.
<i>Elez</i>	Hitzez. (Azkuek, zentzu bereizi batean ere badakar bere Part. delakoan: <i>Hablado elez</i>). Beraz, <i>buria galtan orai, elez</i> = burua galtzen orain, hitzez ala hitzeginez?
<i>En</i>	Haien. <i>en alaba bat</i> = haien alaba bat.
<i>Er</i>	Haiei. <i>ni er baninden</i> = ni haiei banintzen.
<i>Entelegatu</i>	Aditu, ulertu.
<i>Erkin</i>	Irten, atera. (Zub.: <i>elkhi</i>).
<i>Erra</i>	Erre.
<i>Esketan</i>	Eskatzen, galdatzen.
<i>Eskua</i>	Eskubia, eskoia (?)
<i>Espartiña</i>	Espartzin, abarketa (mugagabea).
<i>Etxakin</i>	Ez jakin.
<i>Etsetse(n)</i>	Etxen (?) atxikimendu haundi batez?
<i>Etzulikaka</i>	Itzulika, zilipurdika, iraulka.
<i>Exerra</i>	Edderra, edertto. (Zub.: <i>eijerra</i>).
<i>Ezegunten</i>	Ezagutuko. <i>nik ez ezegunten</i> = nik ez (dut) ezagutuko.
<i>Ezkontuk</i>	Ezkondurik.
<i>Fite</i>	Berehala, bizkor, laster.
<i>Galtatu</i>	Galdetu.

KOLDO ARTOLA

<i>Garrotekaldi</i>	Makilaldi, astinaldi.
<i>Gatxiara</i>	Haserretzera (?). (Azkue, Part.: Enfadarse, enojarse, <i>gatxitu</i> .)
<i>Giauren</i>	Guhauren, Geure.
<i>Goixtegunian</i>	Goizean goizik (?).
<i>Igar -i</i>	Igaro, igaran.
<i>Igartra</i>	Igarotzera.
<i>Igirikan</i>	Igerika, igeri egiten.
<i>Intzagur</i>	Intxaur.
<i>Iror, Irur</i>	Hiru.
<i>Ixik -i</i>	Izeki, biztu.
<i>Izaguntu</i>	Ezagutu.
<i>Izari</i>	Ezarri, ipini, jarri.
<i>Kario</i>	Garesti.
<i>Katamora</i>	Gozakiz egin jateko gauza bat, zenbait era eta irudi ezberdinez moldatzen dena.
<i>Kausi -tu</i>	Arkitu, asmatu.
<i>Keki</i>	Haiekin.
<i>Kuetra(r)a</i>	Hauetara.
<i>Kuexone</i>	Agian <i>kuexonek</i> = hauexek (?). Ez dut uste. <i>kosino</i> eta <i>kuxala</i> edo <i>kuxalen</i> -ekin, bai ote zer ikusirik?
<i>Lant(z)atu</i>	Dantzatu.
<i>Lein</i>	Lehen.
<i>Lotet -u</i>	Lotu.
<i>Llabe</i>	Labe ttiki.
<i>Lloba</i>	Lehengusu. Azkuek, bere hiztegian, <i>sobrino</i> , <i>neveu</i> ematen du Erronkarirako.
<i>Mino, Bino</i>	Baino.
<i>Morroï</i>	Mutil.
<i>Ñon ere</i>	Inon ere.
<i>Ñork ere</i>	Inork ere.
<i>Ñor ere</i>	Inor ere.
<i>Obro</i>	Gehiago. (Zub.: habo(r)o).
<i>Ogart -u</i>	Ohartu, gogoratu.
<i>Ogen</i>	Bekatu.

<i>Oraiguneko</i>	Duela denbora gutxiko.
<i>Orki</i> -tu	Itxoin, zai egon, iguriki.
<i>Orrek</i> (D. t.)	Berorrek.
<i>Orren</i> (D. t.)	Berorren.
<i>Osagarri</i>	Osasun.
<i>Oski</i>	Zapata, oinetako.
<i>Plaztan</i>	Plazan.
<i>Potréta</i>	Argazki, fotografia. (mugagabea).
— <i>rik</i>	— tik. <i>Zankozarik</i> = Zankozatik.
<i>Sentotu</i>	Sendatu.
<i>Sonia</i>	Soinua.
<i>Tenpra</i>	Denbora.—Eguraldi. <i>ténpra anitx</i> = denbora asko. <i>tenprá degu anitxi gatxiara</i> = eguraldia dugu ...
<i>Tserteka</i>	Arrastaka (Azkue, Dic.: <i>Terteka</i> (R) Arrastrando, traînant).
<i>Txiki</i>	Gutxi, guti.
<i>Tximilindrona</i>	Azkue. Part.: Hombre desaliñado <i>txilindron</i> . Zer ikusirik bai ote du?
<i>Urdin</i>	Erdoi, erdoitua (?).
<i>Uriña</i>	Iruñea.
<i>Xako</i>	Zahato, zahagi ttikia. (Zub.: xahako.)
<i>Xarren</i>	Xaharrentzako. (lan) <i>sobra xarren egitan nela</i> = (lan) gehiegi xaharrentzako egiten nuela. (Azkue, Part.: Prov. 131. <i>Yorea yire ta enea bien</i> lo tuyo para tí y lo mío para los dos.—Izagirre, RSVAP 1961: <i>ésketu nun éne (enetáko), ñáuren (ñaurentáko), yire (yiretáko)</i> ... lo he pedido para mí ...; Etxahun Barkoxekoak ere, bere «Ahargo eta Kanbillu» famatuan (Zub.): <i>Olhua franko Barkoxen, hi bezalako astuen</i> = olo asko Barkoxen, hi bezalako astoentzat.
<i>Xaseririk</i>	Eseririk.
<i>Xatra</i>	Jatera. <i>ezin el xatra</i> = ezin heldu jatera.
<i>Xin</i>	Jin, etorri.
<i>Xinkon</i>	Agian <i>Xinko</i> = Jainko.
<i>Xo(r)ieki</i>	Agian <i>ziaurieki</i> (?) = zeroiekin.
<i>Zartána</i>	Zartagin. Mugatzen bada, <i>zartaná</i> = zartagina.

KOLDO ARTOLA

<i>Zeriara</i>	<i>Zera-tik</i> . Pentsatu bitartean erabili ohi den tarteko bat. <i>xin zenian bere zeriara</i> = etorri zenean bere zerara, bere zentzura ...
<i>Zinkuru</i>	Arrenkura. (Azkue, Dic.: <i>Zinkuru (R-uzt)</i> Queja, plainte.) <i>ezin zinkrutik egon</i> = ezin kexaturik egon.
<i>Zomait</i>	Zenbait.

HIRU KRISMA

Hona hemen, osagarritzat eta esanik gelditu den bezala, Antonia andreak, nik igorri zorion emate zenbaiti, erantzun gisa bidali dizkidan krismak. Tratamentua, zein nahi den krisma irakurtzen dela, nahiko nahastua agertzen zaigu.

1972-73eko Eguberritan bidalia

*nique echaquin escribachen
e uscaraz orrec anich onqui
esquer anich, ecusi dur ogartan
drela nitaz, queben denbora
degu anichi oz, bar degu izan
sutonduan, oray nago
onqui osegariz, orec ere bay¹
izan deila u[r]te anichentaco
Urteber[r]ia izan deila anich
on gucientaco, eta orai
canta zazue goachen
ainguriequi.*

Antoni

nik ere ez jakin idazten euskaraz, berorrek aunitz ongi, esker aunitz, ikusi dut ohartzten direla nitaz. Hemen eguraldia dugu aski otz, behar dugu izan sutondoan. Orain nago ongi osasunez, berori ere bai. Izan dadila urte aunitzetako. Urteberria izan dadila aunitz on guztientzat, eta orain kanta ezazue goazen aingeruekin.

1 Honela behar luke jerro honetakoak: *onqui osagarritz, ori ere bay*.

1973-74eko Eguberritan idatzi eta bidalia

*eltu duc natibitate esquer
anich ogarteaz, niquere ber
guisan igortan diar iri, igar
bazcua onac, eta sin deila
u[r]te berri ona, gucientaco
tenpra degu anichi gachiara
Elurra*

Antoni

Heldu duk Eguberri. Esker aunitz ohartzeaz, nik ere gisa berean igortzen diat hiri, igar Bazko onak, eta etor dadila urte berri ona guztientzat eguraldia dugu nahiko txartzera Elurra

ERRONKARIKO USKARAREN AZKEN HATSAK ... EINO'RE!!

1974-75eko Eguberritan egin eta bidalia

*Nis echaquin escuribitan
ic bezala, gaisqui, esquer
anich, guizon borantate¹
oncorrequi, ni viar suerte²
egin biar[r]ez amachar
coni, cola baliz eta
orai, izan deila bazcua
anich on eta urte ber[r]ia
jaingeicuac esquetan
dien bezala, orai orqui
beste urte bati, eneroren*

Antonia 17 garne
an 87 (?)

Nik ez jakin idazten
hik bezala, gaizki. Esker
aunitz, gizon borondate
on horrekin. Ni biar suerte
egin beharrez amona xahar
honi, hola balitz! eta
orain, izan dadila Eguberri
aunitz on eta urte berria
Jaungoikoak eskatzen
duen bezala. Orain itxoin
beste urte bati, urtarrilaren

Antonia 17 garrene
an 87 (?)

1 Lehenengo lerroan, *Nic* behar du izan eta hirugarren honetan *borontate*.

2 Zozketagatik dio, loteria pixka bat bidali bainion.

AZKEN OHARRAK

Agian, harrigarri gerta daiteke lan honetako idazkeran, batzutan ageritzen den zenbait aldakuntzaz ohartzea. Hauxek dira, hain zuzen, nabarmenen azaldu zaizkidanak:

Iror/irur (bi alditan *urur*) eta haietarik sortzen direnak. Ez zait, batzutan, ongi bereizten erraz izan, bien arteko zerbait entzuten dela baitirudi. Aldi bakoitzean, hala ere, iruditu zaidana jarri dut.

Gauza bera esan daiteke *beste/bezte* (aldi batean *meste*), *zomait/zonbait/zenmait*, *go(i)xan/goizan/goix(e)an*, *gaxto/gaixto/gaizto*, *xoan/xuan*, *mino/mino* eta abarreko hitzen moldeetaz, *-ea/-ia* eta *-oa/-ua* bukaerako hitzak ere barne direla. *Bost*, kardinal bezala, beti aipatu du horrela, bai eta *bostak* ere, baina *borzgarna* esan du ordinala erabili duen bakarrean (Uztarrotzen, *borz*.)

«Gehiago» esateko, maiz ikusten denez, *obro* erabiltzen du beti, baina *geienak* irakur daiteke, *obroenak* itxaro zitekeen lekuan. *Balira* ta *balite*, hainbestetan eztabaidatutako horik, beren zentzu bereiziaz azaltzen zaizkigu: *bizi izan balira* dio: ez baitira bizi gaur egun; *il balite*, ordea, bizirik daudenei buruz. Ez dakit bestalde, krisma batean irakur daitekeen *kola baliz* bat, arazoari argi ematera datorkion; zozketa batean, suerte ona oso urrutitik baizik gertatzen ez baita.

KOLDO ARTOLA

Erlatibua dela eta, oso esaldi bitxi bat erabiltzen du: *ta ura, al zien gisa, tserteka, xoa* (zen) *artzemaitra, etse ... amaño ziena, amañoen ziena* = ... hurbil zuen etxea. Bitxi dela diot, ez baita horrelakorik behin baizik arkitzen berak esan guztietan eta bai, ordea, ohi bezalako erlatibu arrunta. Ezin daiteke esan, alabaina, Erronkarin era hori erabilia izan ez denik: Azkuek egin *Part. delakoan* eta *Proverbios* deitu atalean, honelakoak arkitzen dira: 32-*Arri tiratan denak ez du begirik la piedra que se lanza no tiene ojos.*—88-*Etse onki dagoniara krutxea bortara a la casa que está bien cruz a la puerta.*—253-*Zanko eginik daudenak lantzatra ezdokei kausi baratra pies hechos a bailar no se hacen (no pueden encontrarse) a estar quietos.* Mariano Mendigatxa Bidankozekoak ere (Euskera 1957 Bilbao.—A. Irigoyen: *Cartas de Mendigacha a R. M. de Azkue*), erabilkera hori sarri erakusten du: *Vidankoze 1903co Agorrilaren 20na.* burutzat duen eskutitz batean, honela ikusten da: ... *chakur inzlari aztandagonaren bikainbat ssateko ganureki* = hazten dagoen txakur ehiztari (edo ehiza txakur?) bezainbat jateko gogorekin.—*Vidankoze 1905co Setemeraren 11na.* delakoan, gauza bera: ... *kontatako baidra oren igartandrenak* = kontatzeko baitira igarotzen diren orenak, orduak. Eta horrelakorik asko eta asko; bazitekeen denbora batean, Bidankoze hegoalde samarrean baitago, erdal kutsadura haundiago baten azpira eroria egotea.

Lehenxeago aipatu *Proverbios* horietan (Azkue, *Part.*, 36 zenb.), honako hau arki daiteke: *Aurten zarrak il balite onki konfesatruk! gazten ogia xatan baitei gaizki merexitruk ;si murieran este año los viejos bien confesados! pues comen el pan de los jóvenes mal merecido* (R-uzt). Eta jarraitzen zuen Azkuek 1931eko urte hartan: *Creían mis colaboradores que alguna vez se ha cantado esto.* Antonia andreak esaldi hau ezagutzen zuela garbi da; halako batean, kazetan, gai horri buruzko artikulu bat irakurri ondoren esan zuenetik, oso hurbil baitago.

Merexiturik esan du, hala ere, bai eta bestetan ere *ezkontuk* eta *belai-zurik*; ez du inoiz *-truk* bukaera erabili: ez *merexitruk*, ez *ezkontruk* («bortaltruk» itxaro zitekeen?), ez eta *belai-zuruk* ez dira entzuten inondik ere, aipatu liburuak irakurtzetik itxaro zitekeenaren arauera.

Koldo ARTOLA

Donostian, 1975eko Abenduan

Aurreko orri horik berrikusteko, inprimategitik igortzen dizkidateneko, Antonia Anaut andre maitagarri honen heriotzaren berri, hain samintasun haundiz bete gaituen berri mingots hori —nahiz gauza zabaldua izan— eman beharrean arkitzen naiz. Gure «Tia Antonia» honek hainbestetan esan: «... *Jangéikoak nai dien ártio*» hori, iritsi zaio ezin bestez bere Katalin Gardeko kabian, igaran Apirilaren 30an, 88 urtetan, Izabako uskara bera-ekin hobira eraman duela.

Joan den Urtarrilean, aipatu urte horik bete berriak zituela, makaltzen hasi zen, Aste Sandurako ezin ibiliz gelditua zelarik. Hil aurreko azken egun horietako batean —eta familiarrek diotenez— berpiztu xamar eta hizketarako gogoak zegoen batean, bere zentzu osoaren jabe izaki, euskaraz hitzegiten hasi eta oso denbora luzean jarraitu zen, inguruan zituen etxeoak, apeza eta sendagilea, elkarri begira, harriturik baina irrifarrez zituela; ezer ulertzen ez zioten arren, hain humore onez ikusten baitzuten. Beste denboraldi batzutako, bere gaztezaroko, bere orduko familiar giroko oroitzapenak eta bizi izanikako mementuetaz eta gauzetaz izango ote ziren, agian, bere mintza gaiak ...?

Bakean beza atsedean, bihotz eta ariman euskara hain itsatsirik, hain tinkaturik zedukan andre euskaldun honek, eta egun, Izaban, euskara ikasten hasi den hainbat gazteren izpilu eta eredu izan dadila!

K. A.

1976ko Uztailean

